

ZARAUTZ / 'Freskagarriak' gida kaleratu du liburutegiak

Sanz Enea Liburutegiak irakurketa gidak kaleratu ditu irakurzaletasuna sustatzeko.

Freskagarriak 2012 udal liburutegiak gidak, Andoain, Astigarraga, Hernani, Usurbil eta Zarauzko Udal Liburutegien artean egindako liburu, disko eta filmen hautaketa biltzen du.

Gidaren helburua aisialdi garaian irakurketari ekin nahi diotenei eta ohiko irakurleei hainbat titulu proposatu irakurzaletasuna eta liburutegiaren erabilera areagotzeko asmoz. Hala, gidan aipatutakoak Sanz Enean izango dira eskuragarri.

Gogoratu udako ordutegia: helduen liburutegia goizean 09:00-14:00 bitartean eta arratsaldean 17:30-20:00 bitartean, eta fonoteka eta haur liburutegia 10:00-14:00 bitartean.